

Euskotrenek urriaren 5ean, 6an eta 7an Eibarko Udalbus zerbitzuaren ibilbidea aldatuko du

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, urriaren 5ean, 6an eta 7an Eibarko Udalbus hiri barruko zerbitzuaren ibilbidea aldatuko du, Santaines kalean egingo dituzten lan batzuk direla eta.

Autobusak Santainesetik eta Indalezio Ojanguren kaleetatik ezin izango dira ibil. Hori dela eta, Eroskiko biribilgunean Isasi kalera desbideratuko dira eta **Ipuruako eta Sostoa-tarren kaleko geralekuak kendu egingo dira.**

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen telefonoa dute: 944 333 333. Horrez gain, www.euskotren.eus webgunean eta [twitter@euskotren](https://twitter.com/euskotren) webgunean ere jaso daiteke informazioa.

Igorpen data: ostirala, 2020ko urriaren 2a

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES